

# Baztan eta Bidasoa



**TURISMO BULEGOA:**

**BERTIZ**  
Landa Turismoko Zentroa  
(+34) 948 592 386  
oit.bertiz@navarra.es

**TURISMO INFORMAZIORAKO GUNEA**  
(urte osoan irekita)

**TURISMO INFORMAZIORAKO GUNEA**  
(denboraldian irekita)

Zer ikusi

Baztango Donejakue bidea

Bidasoko Bide Berdea eta EuroVelo1

EuroVelo1

Museoa - Interpretazio zentroa

Natura-parkea

Leizeta

Bainurako eremua

Bainuetxea

Behatokia

Abentura-parkea

Bidexkak



[www.visitnavarra.es](http://www.visitnavarra.es)

@visitnavarra.es

## Zer ikusi

### Baztan

Baztango ibarra, indianoen lurra, klima leunekoa, belardi berdez eta oihan zabalez osatua. Leku ezin hobea beroa pasatu nahi ez denean. Ereku horretan lainoa eta zeru oskarbia jolasean aritzen dira mendiekin eta baserri sakabanatuekin. Herri hauek osatzen dute: Erratzu, Azpilkueta, Arizkun, Amaiur, Elizondo, Elbete, Lekaroz, Irurita, Gartzain, Arraioz, Oronoz, Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz. Ereku horretan, ohiko hizkuntza da euskara, Europako hizkuntza zaharrenetako bat.

- 1. ELIZONDO:** Herri ederra, Santiago eliza, Arizkunenea jauregia, udaletxea.
- 2. AMAIUR:** Herri ederra, errota, gune arkeologikoa, gazteluaren aurriak eta monolitoa.
- 3. ZIGA:** Eliza herreriara, Baztango begiratokia.
- 4. ARIZKUN:** Santxotena museo-parkea.
- 5. BAZTANGO DONEJAKUE BIDEA:** Urdazubi, Amaiur, Arizkun, Elbete, Elizondo eta Almandozen barna doa, eta Lantz, Olague, Sorauren, Orikein eta Arre herrietatik jarraitzen du; Arren, Frantses Bidearekin elkartzen da.

Baztango ibarretik oso gertu, bisitatu behar dituzu:

- 6. URDAZUBI:** San Salbatore monasterioa eta museoa, Ikaburuko leizeak.
- 7. ZUGARRAMURDI:** Sorginen Museoa, leizea.



### Bertizarana

- 8. OIEREGI:** Bertizko parke naturala.

### Malerreka

Ibar hori udalerrri hauek osatzen dute: Beintza-Labaien, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Urrotz, Oitz, Donamaria, Sunbilla, Ezkurra, Eratsun eta Saldias.

- 9. URROTZ eta BEINTZA-LABAIEN:** Leurtzako urtegiak.
- 10. ELGORRIAGA:** bainuetxea eta Euskal artzainaren museoa.
- 11. ZUBIETA:** errota.
- 12. DONAMARIA:** Jauregia dorretxea (gaur egun ez da bisitagarri).



### Bortziriak

Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Bera herriek osatzen dute.

- 13. IGANTZI:** Irrisarri Land abentura parkea.
- 14. ETXALAR:** Herri ederra, elizako lorategiko hilarriak, usategiak.
- 15. BERA:** Itzea herria eta etxea (Barojatarren etxea).
- 16. LESAKA:** Erdi Aroko herria eta dorretxeak (pribatuak dira, ezin dira ikusi).
- 17. BIDASOKO BIDE BERDEA eta EUROVELO1-EDERBIDEA:** Bertizko Parke Naturaletik Endarlatsaraino (Bera), 35 kilometro.

## Festak eta tradizioak



**Inauteriak** Ituren, Zubieta, Bera, Lesaka (18), Sunbilla, Arizkun, Erratzu.

Baztandarren Biltzarra (19), Elizondon, uztailaren erdialdean.

**Artzai Eguna**, Amaiurren, abuztuaren 15ean.

**Olentzero** inguruko herri askotan, abenduaren 24an.

Etxalarko **usategien eguna**.

**Feriak** Elizondon (20), Donezteben, Lesakan.

**Jardunaldi mikologikoak eta ehizari buruzkoak.**

**Baztan-Bidasoko Ehizaren Jardunaldi Gastronomikoak.**

**Laxo txapelketa** Iruritan, Arraiozen, Donezteben eta Oitzen.



Amurraina



Usoa

## Gastronomia

Pirinioetako sukaldaritzak bere espezialitateak ditu: ehizakia, ondo eta zizak, amurrainak, txuleta ederrak, sagardoa, Idiazabal Jatorri Deiturako gaztak, gaztanberaren edo krema-kanutilloen gisako ohiko esne-postreak, gantxigor opilak, frutetan kiwia edo artisau-txokolate bikainak, hala nola, Elizondoko urrakin egina.



Krema-kanutilloak



14



Ezinbesteko bideak Nafarroan

Web interesgarriak

<https://baztan-bidasoa.com>

<https://urarenbailarak.eus/>